

**GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU-KO LANGILEEN BIZITZA ETA
ISTRIPUEN ESTALDURARAKO ASEGURUA PUBLIZITATERIK GABEKO
PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ KONTRATATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN
DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA**

1. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratu hau publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez esleituko zaio eskaintza ekonomiko onena aurkezten duen lizitatuari.

Horretarako, Kontratazio Organoak kontratua gauzatzeko gaitasuna duten hiru enpresari egingo die eskaintza, gutxienez.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU (aurrerantzean, GHK) sozietatearen langileen bizitza eta istripuen aseguruaren estaldura kontratatzea.

Ezaugarri Teknikoen Agirian eta Baldintza Administratibo Berezien Agiri honetan xedatutako oinarriak beteko dira horretarako, gutxieneko estalduratzat jotzen baitira.

3. ALDAERAK

Ez da aldaerarik onartuko.

4. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAU sozietatea da entitate kontratatzailea.

Kontratazio Organoa GHKko Administrazio Kontseilua da, eta aplikazio pribatuko eskubide-arauek xedatutakoaren arabera, kontratua dela-eta jarduketa zehatzak egiteko beharrezkoak diren pertsonen horretarako ahalmena emango die.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Esleipena egin ondoren sinatzen den kontratuaz gain, kontratu izaera izango dute Baldintza Administratibo Berezien Agiri honek eta Ezaugarri Teknikoen Agiriak.

Kontratua sinatzen duen momentuan, esleipendunak dokumentu horiek guztiak sinatu beharko ditu, horiekin ados dagoela adierazteko.

6. GAUZATZE EPEA

Kontratuaren iraupena 3 urtekoa izango da. Iraupen hori urtebeteko aldietan luzatzeko aukera egongo da, gehienez 2 aldiz.

Kontratuaren iraunaldia luzatuz gero, hurrengo urtetako urteko primak kalkulatzeko orduan, honako hau hartuko da kontuan:

-Aseguratutako bermeetan egon diren aldaketak.

-Hurrengo urte saria dela-eta, bi alderdiek adosten dituzten likidazioak edo prima-doiketak.

Poliza berritzeko kontratuko bi alderdien berariazko hitzarmena beharrezkoa izango da.

Hala ere, GHK-k ez badu onartzen kontratua luzatzea proposatutako baldintza berrietan, Erakunde Aseguratzailerak(ek) derrigorrez luzatu beharko du(te) indarrean dagoen aseguru kontratua, gutxienez hiru hilabeterako eta gehienez sei hilabeterako, betiere luzapen-epeari proportzionalki dagokion tasa eta estaldura-baldintza berdinetan, era horretan, GHK-k, aseguru-kontratu berri bat esleitzeko deialdia egin dezan.

7. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren gehienezko prezioa, langile taldea osatzen duten bederatzi pertsonentzat, 5.000€/urtekoa izango da (kontratuaren gehienezko prezioa 25.000 eurokoa izango da).

Ez da gehienezko lizitazio prezioa gainditzen duen proposamenik onartuko.

8. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez.

9. ORDAINTZEKO MODUA

Urteko faktura GHKri aurkeztu eta horrek onespena eman ondoren egingo da kontratuaren prezioaren ordainketa.

10. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa nahikoa aurreikusi da.

11. GAITASUN BALDINTZAK

GHKrekin kontratua egin ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, bai espainiarrek bai atzerritarrek ere, jarduteko gaitasun osoa badute eta kontratatzeko debekurik ez badute.

Ezin izango dute lizitazioetan parte hartu zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten jardun duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia askea muga badezake edo pribilegiozko tratua eragin badezake gainerako enpresa lizitatzailleekiko.

Enpresaburuek, halaber, kontratuaren objektu den jarduera edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendunak izango dira, baldin eta pertsona juridiko horren Estatutu edo fundazio-arauek xedatutakoari jarraiki, kontratu horren zerbitzuak berezkoak dituen xede, helburu edo jarduera-esparruaren barne badaude.

Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek GHKrekin kontratatuzeko gaitasuna izango dute, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera dena delako prestazioa gauzatzeko gaikuntza badute.

Enpresa horien jatorrizko estatuetakoko legediak lurralde honetan zerbitzuak eskaintzeko baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute lizitatzailleek.

Europar Batasuneko kide ez diren estatuetakoko pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako Diplomazia Misio Iraunkorraren txosten baten bitartez egiaztatu beharko dute enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategineko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko kideko ente, organismo edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko.

GHKrekin kontratua egin ahal izango dute aldi baterako sortutako enpresari-batasunek. Kontratua batasun horri esleitu arte, ez da eskritura publikoen bidez legezko egin behar. Beraz, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuko 59. artikuluan xedatutakoa da aplikagarria kasu horretan.

12. ESKAINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Eskaintzak aurkeztean, lizitatzailleak, salbuespenik gabe, Agiri honetan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan xedatutakoa erabat onartzen dituela ulertzen da.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailleek, GHK-ko bulegoetan, Ibaiondo kalea 27-3. solairua, Orbegozo Eraikina, 20120 Hernani helbidean hain zuzen, eta gonbitean horretarako zehaztutako epearen barne, **gutun-azal itxi bat** aurkeztu beharko dute. Aurrerago zehaztuko da gutun-azalaren edukia, baina horren kanpoaldean enpresaren izena, eskaintza sinatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta kargua, enpresaren telefono eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa agertu beharko dira, hori guztia inolako arazorik gabe irakurtzeko moduan.

Halaber, gutun-azalean hau idatzi beharko da: **"GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU- KO LANGILEEN ASEGURU PERTSONALEN ESTALDURAN (BIZITZA ETA ISTRIPUAK) PARTE HARTZEKO ESKAINTZA"**

Lizitatuzaileak postaz bidaltzen badu proposamena, posta bulegoan zein egunetan utzi zuen egiaztatu beharko du eta bidalketaren berri eman beharko dio GHKri, telex, fax edo telegrama bidez egunean bertan. Halaber, jakinarazpen hori posta elektronikoz bidali ahal izango du lizitatuzaileak. Lizitatuzaileak jakinarazpen hori posta elektronikoz egin ahal izateko, eta bide hori baliagarria izan dadin, ezinbestekoa izango da bidalketa igorri eta jaso izana behar den eran jasota geratzea, komunikazioen datak eta eduki osoa agerikoak izatea eta igorlea eta jasotzailea modu sinesgarrian identifikatuta egotea. Kasu horretan, hala eginez gero, kopia inprimatua espedientearen sartuko da.

Bi baldintzak betetzen ez badira, edo bidalketaren jakinarazpena eskaintzak aurkezteko epetik kanpo jasotzen bada, eskaintza ez da onartuko.

Hala eta guztiz ere, esandako eguna iritsi eta hurrengo hamar egun naturalak igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, eskaintza ez da inolaz ere onartuko.

Gutun-azalak dokumentu hauek izango ditu:

a) Gutun-azalean doazen **dokumentuen zerrenda**.

b) **Parte hartzeko eskaera, I. Eranskinako** ereduaren arabera.

c) **Lizitatuzaileak jarduteko gaitasuna duela frogatzen duen ziurtagiria, eta beharrezkoa bada, ordezkagaitasunaren frogagiria**, Herri Administrazioetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 21. artikuluan xedatutakoa betez:

- Pertsona juridikoak diren enpresariak jarduteko duten gaitasuna frogatzeko, osaketa-eskirtura edo dokumentua, Estatutuak edo fundazio-egintza aurkeztu beharko dira: bertan enpresa horren jardura arautzen duten xedapenak agertu beharko dira, eta enpresa hori, pertsona juridiko motaren arabera, Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuta dagoela ere egiaztatuko da.

- Espainiatik kanpoko enpresariaren kasuan, Europar Batasuneko estatu-kideetakoak badira, enpresaren estatuko legediak xedatutakoaren arabera, dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatuz frogatuko da enpresariaren jarduteko gaitasuna. Bestela, erkidegoko aplikazio-xedapenei jarraiki, ziurtagiri edo zinpeko aitortpen bat aurkeztuko dute.

- Gainerako atzerriko pertsona fisiko eta juridikoen jarduteko gaitasuna frogatzeko, dagokion estatuko Espainiako diplomaziako misioak edo enpresaren helbideari dagokion kontsultxeko bulegoak egindako txostena aurkeztu beharko dute. Txosten horretan aipatu behar da atzerriko enpresa horren estatuak Administrazioarekin, eta esparru publikoko erakunde, organismo edo entitateekin kontratatzeak aukera onartzen duela; hain zuzen ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 3. artikuluan xedatutako kasuak modu berdintsuan betetzen direla.

- Pertsona fisiko diren enpresariak jarduteko gaitasuna dutela frogatzeko, Espainiako Nortasun Agiria edo dagokion estatuko agiri baliokidea aurkeztuko dute.

- Beste pertsona baten izenean proposamenak aurkeztu edo sinatzen dituzten pertsonak, Espainiako Nortasun Agiriaren kopia aurkeztuko dute, eta horretarako beharrezko boterea dutela frogatu beharko dute. Enpresa lizitatzailerak elkarrekin edo pertsona juridikoa balitz, ahalordeak Merkataritza Erregistroan izena emana agertu beharko du, Merkataritza Erregistroaren Araudiak 94. artikuluan xedatutakoari jarraiki, hala eskatzen denean.

- Aldi baterako batasunean elkartuta parte hartu nahi duten enpresarien kasuan, kide bakoitzaren izen eta postuak, eta bakoitzaren partaidetza zehaztu beharko dira, eta esleipendun badira, baita aldi baterako enpresa-batasun gisa eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere. Behin-behineko batasun batean parte hartu nahi duten enpresariak solidarioki behartuta geratuko dira; batasunaren ahalorde edo ordezkari bakarra izendatu beharko dute, eta ahalorde horrek kontratuak sorrarazten dituen betebeharrak eta eskubide guztiak gauzatzeko beharrezko boterea izan beharko du, kontratua iraungi arte. Halaber, horrek ez du eragozten, zenbateko nahiko handiak kobratu eta ordaintzeko, botere edo administratzaile mankomunatuak sortzea.

Behin-behineko enpresari-batasuna osatzen duten kideek Agiri honetan aipatzen den gaitasun eta kaudimena dutela frogatu beharko dute; behin-behineko enpresaren kaudimena zehazteko orduan, bertako kide bakoitzak frogatutakoak hartuko dira kontuan, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, herri administrazioen kontratuei buruzko legearen erregelamendu orokorra onartzen duenak (aurrerantzean HAKLEO) 52. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, ondorio hauetarako, erabat aplikatzen baita bertan xedatutakoa.

Dokumentazio hori guztia jatorrizkoa izan beharko da, edo bestela, behar bezala konpultsatutako kopietan aurkeztuko da.

d) Aseguru Erakundearen Erregistro Berezian izena emanda egotearen frogagiria.

e) Jarduteko baimena duen aseguru-esparruei buruzko frogagiria.

f) Kaudimen ekonomikoari, finantzarioari eta teknikoari edo kaudimen profesionalari buruzko frogagiriak.

f) 1. Enpresariaren **kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa** baliabide hauen bitartez frogatuko da:

1. Urteko negozio-bolumenari buruzko aitortpena eta, beharrezkoa bada, kontratuak aipatutako esparruko urteko negozio-bolumenarena, lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbitean zein kontratuaren baldintza agiritan urte sari bakoitzerako zehaztutako zenbatekoa ala gehiago zehaztuz.

2. 3.000.000 € euroko ala hortik gorako lanbide-arriskuen kalte-ordainetarako aseguru (Erantzukizun Zibila) dagoela egiaztatzen duen frogagiria.

f) 2. Enpresariaren **kaudimen teknikoa edo profesionala** baliabide hauen bitartez frogatuko da:

1. Azken bost urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrendaren bidez; zerrenda horretan, alderdi hauek zehaztu beharko dira: zerbitzu edo lanon zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa zein pribatua; halaber, antzeko bost lan edo zerbitzu egin dituela egiaztatu beharko du. Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak eginiko ziurtagirien bidez edo organo horrek eginiko ikus-onespenaren bidez egiaztatuko dira, hartzailea alor publikoko erakundea denean; eta hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, horrek eginiko ziurtagiriaren bidez, eta ziurtagiririk ez dagoenean, enpresariaren adierazpen baten bidez. Dena den, ziurtagiri horiek agintaritzak eskudunak kontratazio organoari zuzenean jakinaraziko dizkio.

g) Berariazko eta erantzukizuneko adierazpena aurkeztu beharko da, agiri honen **II. Eranskinean** jasotako ereduak erabiliz, eta bertan adierazi beharko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 60. artikulua xedatutakoaren arabera, kontratatzeke inolako debekurik ez duela adieraziz.

h) Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharretan lizitatuzailea egunera dagoela adierazten duen berariazko erantzukizuneko adierazpen bat aurkeztu beharko da. Esleipenaren jakinarazpena egiten denetik hamabost (15) eguneko epean gehienez, lizitatuzaileak baldintza hori frogatzen duen adierazpen-frogagiria aurkeztu beharko du.

i) Atzerriko enpresek Espainiako edozein esparruko auzitegi eta epaimahaien jurisdikzioan jartzeko borondatea adierazten duen adierazpena aurkeztu beharko dute, era horretan, kontratua dela-eta sor daitezkeen zuzeneko edo zeharkako auziak jurisdikzio horren barne bideratzeko atzerriko lizitatuzaileen kasuan, lizitatuzaileari dagokion atzerriko jurisdikzioari uko eginez gainera.

Atzerriko enpresek modu ofizialean gaztelerara ala euskarara itzulita aurkeztu beharko dute dokumentazioa. Dokumentazioa paperean aurkezteaz gain, eskaintza osoa formatu elektronikoa ere aurkeztu beharko da derrigorrez.

j) **Eskaintza teknikoa**, hornidura baldintza teknikoetan xedatutakoaren arabera dela justifikatzen duten ezaugarri teknikoen eta prestazioen azalpena barne.

k) Agiri honi atxikitako **III. Eranskinean** zehaztutako ereduaren arabera proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko dute lizitatuzaileek.

Oharra: 1998ko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak, Euskadiko Erkidego Autonomoko Kontratisten Erregistro Ofiziala arautzen duenak, araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean ageri diren lizitatuzaileek, c) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez, Erregistroko letradun arduradunak igorritako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute.

13. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko ebaluazio-batzordea kide hauek osatuko dute:

- GHKko zuzendariak.
- Finantza-ataleko arduradunak.

14. KONTRATUA ESLEITZEA

Eskaintzak kontuan hartu ondoren, Batzordeak espedientea aztertuko du, eta esleipen-proposamena egingo dio Kontratazio Organoari. Bertan zehaztuko dira kontratuaren behin betiko baldintzak.

Esleipen-proposamenak ez du proposatutako lizitatzaillearen aldeko inolako eskubiderik sortzen Kontratazio Organoaren aurrean. Hala ere, Kontratazio Organoak ez badu kontratua proposamen horren arabera esleitzen, bere erabakia arrazoitu beharko du.

Kontratazio Organoak eskaintza ekonomiko onenari esleituko dio kontratua. Esleipena lizitatzaillei jakinaraziko zaie.

15. NEGOZIAZIORAKO GAIK

Negoiazioan jorratu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak honako hauek dira:

1. Prezioa: 51 puntu arte.

Eskaintza ekonomikoen balorazioa egin ahal izateko, proposamen ekonomikoan zehaztutako prezio taula hartuko da kontuan, hain zuzen ere formatu honetan:

Onartutako proposamenetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, P1 (Hobekuntza maximoa, puntuazio maximoa) eta P2 (0ko hobekuntza, zero puntuazioa) puntuak definitzen duten lerrozuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan, interpolazio lineala egingo da.

Aipatutako puntuak hauek dira:

P1– Eskaintza merkeenari dagokiona (beherapen maximoa), berari emango zaion puntuazioarekin, 60 puntuko puntuazio maximoarekin, alegia.

P2- Lizitazio prezioari (5.000€) dagokiona, 0 puntuazioarekin.

Eskaintzaile bakoitzak lortutako puntuazioa (P) kalkulatzeko, ekuazio hau aplikatuko da:

$$P = (P_{\max} \times B) / B_{\max}$$

Non (B_{max} = Beherapen maximoa)

Baja (B) gisa ulertzen da lizitazio-tipoaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, lizitazio-tipoarekin zatituta.

2. Hobekuntzak: 49 puntu. Xehatuta:

- **10 puntu gehienez:** hobekuntza ekonomiko osagarriak, kontratatu beharreko gutxienerako kapital bermatuen areagotzeetan, egindako areagotzearen arabera emango direnak.
- **10 puntu gehienez:** hobarietan parte hartzeagatik, istripu-tasaren arabera. Proposamenean, istripu-tasaren araberrako hobarietako partaidetza-portzentajea zehaztu beharko da, halakorik badago; hain zuzen ere istripu-tasaren emaitza positiboan aplikatu beharrekoa, baita Administrazio Gastuen portzentajea ere. Portzentaje handiena eskaintzen duen proposamenak izango du puntuazio maximoa. Eskaintza onenarekin alderantzizko proportzioan alderatuta balioetsiko dira gainerako eskaintzak.
- **5 puntu gehienez:** Lizitatuzaileak aseguratutako ezbeharrei dagozkien kalte-ordainak ordaintzeko konpromisoa hartzen badu, ezbehar horiek behar bezala dokumentatu ondoren; betiere 30 laneguneko epea igaro baino lehen. Puntu-kopuru handiena esleituko zaio ezbeharren ordainketa ahalik eta epe laburrenean egitea eskaintzen duenari. Eskaintza onenarekin alderantzizko proportzioan alderatuta balioetsiko dira gainerako eskaintzak. Berandutzerik badago, interesak automatikoki sorraraztea balioetsiko da.
- **24 puntu gehienez:** Lan-programa eta hobekuntza osagarriak, esaterako:
 - Gipuzkoan lan-zentroa edukitzea, lantalde kualifikatuarekin.
 - Langileak atxikitzeke baldintzetan erraztasunak eskaintzea.
 - Luzapen posiblek badago, eskaintzako prezioa mantentzea.
 - Berme osagarriak.
 - Kontratuaren xedea dela-eta, lizitatuzaileak eskaintzan zehaztea egokitzen jotzen duen beste edozein hobekuntza.

16. ESLEIPENDUNARI ESKATZEN ZAIZKION DOKUMENTUAK

Esleipendunak bost laneguneko epea izango du, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, jarraian aipatzen den dokumentazioa aurkezteko:

- a) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela frogatzen duen frogagiria.
- b) Halaber, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatu beharko du, kontratuaren xede den epigrafean, gauden ekitaldiari dagokion alta agiria aurkeztuz, edo gainerako kasuetan, IAEko azken ordainagiria aurkeztuz. Zernahi gisaz,

horrekin batera, aipatutako zergan baja eman ez dela dioen erantzukizunezko adierazpena aurkeztu beharko da.

17. KONTRATUA OSATU ETA SINATZEA

Kontratua sinatzean formalizatuko da, hain zuzen ere Kontratazio Organoak esleipena egin eta esleipendunari hori jakinarazi ondoren.

Behin betiko esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean agiri pribatuan sinatuko da kontratua.

Enpresa kontratistari egotzitako arrazoiak direla-eta, kontratua aipatutako epean sinatu ez bada, GHK-k kontratua baliogabetzea erabaki dezake.

18. KONTRATUDUNAREN BETEBEHARRAK

Kontratuduna edo kontratista behartuta dago kontratua betetzera horretarako xedatutako epe osoaren barne. Halaber, kontratuaren beraren klausuletan eta pleguetan ezarritakoari eta horiek interpretatzeko Kontratazio Organoak kontratistari emandako jarraibideei jarraituz bete beharko du kontratua.

Kontratistak lan alorrean, gizarte segurantzakoan, laneko segurtasun eta higienekoan eta lan arriskuen prebentzioan indarrean dagoen legeriak ezarritako xedapenak bete beharko ditu.

Kontratistak datu pertsonalak atzitzen baditu, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, eta haren garapen-araudiak xedatutako betebeharrak bete beharko ditu.

19. KONFIDENTZIALTASUNA

Baldintza Agiri honetan prozeduran parte hartzen duten partaideei esleipena jakinarazteko xedatutakoa eragotzi gabe, Kontratazio Organoak ezingo du enpresek isilpekotzat jotako informazioa ezagutarazi. Isilpekoak izango dira, bereziki, sekretu teknikoak edo komertzialak.

Kontratistak isilean gorde beharko du kontratuan isilean gorde beharrekotzat jotako informazioa, baita berezko izaeragatik isilpeko informaziotzat jotzen dena, hain zuzen ere kontratuaren gauzatzea dela-eta eskura dezakeena.

20. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du. Pertsona horrek kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala

gauzatzen dela bermatzeko. Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, GHKri lotua edo horri loturarik gabea.

Zehazki, honako hauek izango dira bere eginkizunak:

Berandutzeagatik edo kontratua gaizki betetzeagatik kontratistari ezarri beharreko zigorrak proposatzea Kontratazio Organoari.

Prestazioa jasotzeko egintzan parte hartzea, eta beharrezkoa bada, hori jasotzat ematea.

21. KONTRATUA GAUZATZEA

Xedapen teknikoetan aurreikusitako epean gauzatuko da kontratua, hori sinatzen den momentutik aurrera.

Kontratistaren arrisku eta menturan gauzatuko da kontratua, Sektore Publikoko Kontratazioei Buruzko testu bategineko 231. artikuluan ezinbesteko kasuei buruz xedatutakoa eragotzi gabe, kasu honetan, zehazki aplikagarria baita xedapen hori.

Kontratu hau gauzatzean, zehatz-mehatz beteko dira Agiri honetako xedapenak, Baldintza Teknikoen Pleguan xedatutakoak, baita kontratuaren arduradunari kontratuaren interpretazio teknikoa egiteko jarraibideak ere.

22. ZIGORRAK AKATSAK EGITEAGATIK EDO BERANDUTZEAGATIK

Kontratista behartuta dago kontratua betetzera horretarako xedatutako epe osoaren barne.

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen kausak direla eta, azken epea betetzeko orduan berandutze-egoeran jarri bada, GHK-k aukeran izango du, edo kontratua suntsiaraztea, edo zigorrak ezartzea, proportzio honetan: kontratuaren prezioaren 1000 euro bakoitzeko 0,20 euro, eguneko.

Berandutze-zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

Kontratistak epe partzialak betetzen ez baditu, aurreko bi paragrafoetan zehaztutako eskumen berak izango ditu GHK-k.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen kausak direla-eta, ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala, GHK-k bi aukera ditu: edo kontratua suntsiarazi, edo eguneko zigorrak ezarri.

Zigorrak ezartzeko, kontratistari ordaindu beharreko zenbateko oso edo partzialetatik kenduko dira zigor gisa ezartzen diren zenbatekoak.

Edonola ere, kontratua baliogabetu edo kontratuarekin jarraitzea erabaki arren, GHK-k, aldebakarreko erabakiz, eta hirugarrenen edo berezko baliabideen bitartez, egokitzen jotzen duen epean zerbitzuarekin aurrera jarraitzea erabaki dezake. Bi kasuetan, zerbitzu horrekin aurrera jarraitzeak sortutako gastuak enpresa kontratistari kobratuko dizkio, klausula honetan xedatutako kalte-ordainak, eta gainerako ondorioak eragotzi gabe.

Halaber, kontratuaren prezioari atxikipen osagarriak egitea proposatuko du GHK-k.

23. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua dela-eta sortzen diren eskubide eta obligazioak hirugarren bati laga ahal izango dira, baldin eta GHK-k aldeztu aurretik horretarako berriazko baimena ematen badu idatziz, eta lagapen-hartzaileak Baldintza Agiri honetan GHKrekin kontratatzen zehaztutako baldintzak zein lege baldintzak betetzen baditu, behar bezala sailkatuta egonda, edo, beharrezkoa bada, kaudimen ekonomiko zein finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen baditu; eta betiere, ez badago kontratatzen debekuren batean eta Baldintza Agiri honetan xedatutako baliabideak atxikitzen obligazioa betetzeko konpromisoa hartzen badu. Hori guztia lagapenaren xede den edo diren prestazioei dagokionez.

24. AZPIKONTRATATZEA

Debekatuta dago

25. KONTRATUA ALDATZEA

Interes publikoko arrazoiak direla-eta, edo aurreikusi ezin diren ezustekoei aurre egiteko, kontratua aldatzeko aukera egongo da.

26. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA

Baldin eta GHK-k kontratua etetea erabakitzen badu, edo etetea 220. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorio bada, akta bat egin behar da egoera hori sorrarazi duten inguruabarren berri jasotzeko eta kontratuaren gauzatzea nola geratu den jasotzeko.

Etetea erabaki eta gero, benetan jasandako kalte eta galerak ordaindu behar dizkio GHK-k kontratistari.

27. PRESTAZIOA JASOTZEA ETA BERME ALDIA

Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazioa osorik gauzatu duenean, betiere kontratuko baldintzen arabera eta GHKren nahierara.

Kontratuko prestazioa amaitu eta hurrengo hilabetean, prestazioa jasotzeko egintza egingo da.

GHKren ardura izango da kontratistak prestazioa ondo gauzatu ote duen erabakitzea, hau da, kontratua gauzatzeko eta betetzeko jarritako baldintzak bete ote dituen erabakitzea, eta, beharrezkoa bada, bere ardura izango da kontratatutako prestazioak gauza daitezen galdatzea eta, prestazioak jaso dituenean akatsik ikusi badu, akatsak zuzen daitezen galdatzea. Baldin eta kontratistak ez baditu lanak hitzartutako prestazioaren arabera egin, eta akatsak edo hutsegiteak kontratistari egotzi ahal bazaizkio, GHK-k ezetsi egin ditzake lanak, eta aske geratuko da ordaintzeko betebeharretik, edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Bi urteko berme-aldia ezartzen da, jasotze-datatik aurrera zenbatuta.

Baldin eta, berme-aldian egiaztatzen bada lanetan hutsak edo akatsak daudela, Kontratazio Organoak eskubidea izango du kontratistari horiek konpontzeko erreklamatzeko.

Berme-aldia amaitu eta GHK-k ez badu aurreko paragrafoetako eragozpenik edo salaketarik jarri, amaitu dira kontratistak prestazioarengatik zituen erantzukizunak. Nolanahi ere, kontratua obra-proiektuak egiteko bazen, halako kontratuetarako ezarritakoa eta akatsak konpondu beharraz eta erantzukizunaz 286., 287. eta 288. artikuluetan ezarritakoa bete beharko da.

Kontratistak eskubidea du kontratatutako prestazioa ondo edo gaizki gauzatu duen adierazteko esateko duena entzun dakion.

Hala balegokio, jasotze-akta egiten denetik kontatzen hasita hilabeteko epearen barruan, kontratuaren likidazioa adostu eta hori kontratistari jakinaraziko zaio, eta beharrezkoa bada, dagokion saldoa ordainduko zaio.

28. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarren batzuei eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordaina ematea.

Kontratistak berak hartu beharko du egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen kalitate teknikoaren erantzukizuna, eta, zer edo zer egin gabe utzi duelako, edo akatsak direla-eta, metodo traketsak direla-eta, edo amaiera txarra dela-eta GHKri edo beste inori ondorioak eragin bazaizkio, orduan ere kontratistarena izango da erantzukizuna.

29. KONTRATUA INDARGABETZEA

Kontratua indargabetzeko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 223. artikuluan eta 308. artikuluan xedatutakoak, baita Kode Zibileko 1.124 artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontratu-obligazioak ez betetzea.

Kontratua bere indarraldia amaitu aurretik iraungitzeak honako ondorio hauek sortuko ditu:

- Kontratua bi aldeen adostasunez indargabetzen bada, alde bakoitzaren eskubideak egokituko dira GHK-k eta kontratistak balioz hitzartutakoetara.
- Kontratua kontratistari egotzitako arrazoen ondorioz indargabetzen denean, kontratistari behin betiko bermea kenduko zaio, eta horrek GHKri kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio bermetik gorako zenbatekoak gainditzen dituzten kalteengatik. Edonola ere, kontratu-prezioaren klausula penala ezarriko da.

Klausula honetan xedatu gabeko kasuetarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 224, 225 eta 309. artikuluetan xedatutakoa izango da aplikagarria.

30. ERREGIMEN JURIDIKO ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honek izaera pribatua du, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duenak (aurrerantzean HAKLTB) 20.1. artikuluan xedatutakoari jarraiki; eta Baldintza Administratibo Berezien Agiri honetan eta haren eranskinetan, Baldintza Teknikoen Agirian zein bestelako kontratu-dokumentuetan xedatutakoak arautuko du.

Kontratua prestatu eta esleitzeko orduan, Baldintza Administratibo Berezien Agiri honek eta Baldintza Teknikoen Agiriak arautuko dute kontratua; eta bi dokumentu horiek arautu gabeko kasuetarako, GHKren barne kontrataziorako ezarritako arauak, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak horretarako xedatutako arauak betez (sektore publikoko entitateek egindako kontratuak, baldin eta erregulazio harmonizatuaren arabera ez bada; eta kontratuko alderdietako horietako batek botere esleipenduna badu eta alderdietako bat ere Administrazio Publikoa ez bada) eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamenduak xedatutakoren aurka ez bada.

Ondorio eta indargabetzeari dagokionez, kontratua Baldintza Administratibo Berezien Agiri honek eta Baldintza Teknikoen Agiriak arautuko dute kontratua, eta bi dokumentu horiek arautu gabeko kasuetan, GHKren barne-kontratazio jarraibideak eta zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratazioei buruzko Legea eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendua aplikagarriak izango dira Agiri honek aipatutako araudi guztietan.

Ordena jurisdikzional zibilak izango du kontratuaren prestakuntza, esleipen, ondorio, betearazpen eta iraungitzearen inguruan sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena.

I. ERANSKINA. ERREGISTROAN ENTREGATZEKO PROPOSAMEN EREDUA

..... jaun/andereak, zenbakidun
nortasun agiria duenak, zenbakidun IFZ,
..... helbidea, fax zenbakia
eta/edo helbide elektronikoa duen enpresaren
izenean,

ADIERAZTEN DU:

Gaurko eguneko..... (*) orduan,), **GIPUZKOAKO HONDAKINEN
KUDEAKETA SAU- KO LANGILEEN ASEGURU PERTSONALEN ESTALDURA
(BIZITZA ETA ISTRIPUAK)** kontratatzeke proposamenaren 2 gutun-azalak
entregatzen dituela.

Hernanin, 20....koren(e)an.

Aurkezlearen sinadura

(*) Erregistroko arduradunak bete beharreko hutsunea

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETAKO ERREGISTRO NAGUSIA

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaun/andereak, adinez nagusiak,
..... zenbakidun nortasun agiria eta
..... helbidea duenak (..... telefono
zenbakia,fax zenbakia, helbide
elektronikoa), norberaren izenean edo zenbakidun IFZ,
..... helbidean egoitza,telefono zenbakia,
..... fax zenbakia eta helbide elektronikoa dituen
..... (merkataritza entitatearen ordezkari gisa), adierazten du, bai
berak bai ordeztzen duen enpresak gaitasuna dutela Administrazio Publikoarekin
kontratatzeko, jarduteko gaitasun osoa dutenez, ez baitago Sektore Publikoko
Kontratuen Legeko testu bateginak 60. artikuluan xedatutako kasuren batean. Zehazki,
adierazten du ez duela zigor irmorik jaso segurtasunaren eta laneko osasunaren
esparruan arau hauste oso larri bat egiteagatik, hau da, ez duela Sektore Publikoko
Kontratuen Legeko testu bategineko 60.1 artikuluan xedatutako baldintza betetzen.

Halaber, aitortzen du:

- Egunean dagoela indarrean dauden xedapenek zerga alorrean eta Gizarte Segurantzaren ezarritako betebeharretan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak 13. eta 14. artikuluetan jasotako hedaduran (2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua).
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela bajarik eman zerga horren matrikulan.

Hernanin, 20....(e)koren(e)an.

Sinadura

III. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

“.....jaunak/andreak,
helbidea.....
.....(e)n, NAN zk....., telefonoa....., posta-
e..... dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun
erabatekoaren jabe izanik, bere izenean
(edo.....
.....(e)n,
helbidea.....(e)n, eta
NAN edo IFZ [*pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan izanda*]
zk.....dituenaren ordezkartzan), **GIPUZKOAKO HONDAKINEN
KUDEAKETA SAU- KO LANGILEEN ASEGURU PERTSONALEN ESTALDURAREN
(BIZITZA ETA ISTRIPUAK) LIZITAZIOAN**, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu
bidez, parte hartzeko GHK-k egindako gonbita jasota, Baldintzen Pleguari hertsiki lotuz:

DEKLARATZEN DU:

1º) Konpromisoa hartzen duela€ko prezioan exekutatzeko, zerbitzuaren osotasunagatik, kontratuakopuru orokorrean exekutatzeko proposamena eginez (zehaztu prima garbia eta guztizko prima zein izango den).

Prezioan sartuta daudela kontzeptu guztiak, barne hartuz, edozein arlotako gainerako zergak, gastuak, tasak eta zergen edozein arloko arielak.

2º) Kontratu hau eraenduko duten klausula Ekonomiko Administrazioen Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua ezagutzen dituela eta berariaz bere egiten dituela eta oso-
osorik onartzen.

3º) Berak ordezkatzeko duen enpresak betetzen dituela zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako betekizun eta obligazio guztiak.

.....(e)n, 2015eko.....en.....(e)an

Sinadura.